



**Kontratazio**  
publiko elektronikoa  
**Contratación**  
pública electrónica

# Behin-behineko fidantzen aurkezpena, Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduan berme digitalak erabiliz



[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)  
[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

16

## Dagoeneko berme digitalak aurkez daitezke

Administrazio-kontratazioan parte hartzen duten elementu guztiak betetzeko beste urrats bat gisa, Kontratazio Publiko Elektronikoen Idazkaritza Teknikoa, Elkarrekiko Bermeko Sozietateekin eta Finantza Erakundeekin ari da lanean berme telematikoak ateratzea bultzatzeko.

Aurreikusita dago 2007. urteko bigarren seihilekotik aurrera lehen kontratazio elektronikokoak egitea, eta horietan, behin behineko bermeak aurkezteko aukera egotea berme digitalen bidez. Kontratazio mahaietako idazkariei egokituko zaie berme horiek era elektronikoa irakurtzea eta egiaztatzea.



## Behin-behineko fidantza Administrazio Kontratazioan

"Fidantza", zentzu hertsian, berme pertsonala da, eta horren arabera, zor edo obligazio bat betetzen dela ziurtatzen da fidatzaile baten bidez.

Fidatzailea hirugarren pertsona bat da, normalean Finantza-erakunde bat edo Elkarrekiko Bermeko Sozietate bat, zorrarekin zerkusirik ez duena, baina beteko dela bermatzen duena. Hala, zordunak bere aldetik bete ez duena berak egingo duelako konpromisoa hartzen du.

Administrazio-kontratazioaren kasuan, kontratu baten obligazioak beteko direla ziurtatzen du fidantzak.


## Berme digitalen ezaugarriak

Eusko Jaurlaritza harremanetan jarri da Elkarrekiko Bermeko Sozietateekin eta Finantza-erakundeekin, berme digitalak sortzen hasteko.

Berme digitala, paperean egindako ohiko berme baten adierazpen digitala da, eta onartutako izenpe elektrikoko sistema baten bidez sinatzen da. Hala, bermearen dokumentua, testu-tratamenduko sistema baten bidez (Word, Adobe Acrobat, Open Office, etab.) edo fitxategiak sortzen dituzten aplikazio espezializatuen bidez (XML, ej-gv.doc, etab.) sortzen da, eta geroago, Aintzatetsitako Erakunde Ziurtatzaile batek eskainitako zerbitzuen bidez sinatzen dira era elektronikoa.

Aintzatetsitako Erakunde Ziurtatzaileek, igorlearen nortasuna eta egiazkotasuna, dokumentu edo mezuaren zuzentasuna, eta ematean edo jasotzean onartzen dela bermatzen du ezagututako sinadura elektronikoen bidez.

Hala, Elkarrekiko Bermeko Sozietateek eta Finantza-erakundeek berme digitalak bidali ahal dizkiete beren bezeroei, eta berme horiek, eskaintza elektronikoen prozesuetan erabili ahal izango dituzte enpresek.





Eredu erraz, erabilgarri  
eta segurua

## Berme digitalei eusten dien Lege Gorputza

Berme digitalei eusten dien lege-gorputza ondorengo esparru juridikoak osatzen du:

- Europako parlamentuaren eta kontseiluaren 1999/93/EE arteztaraua, 1999ko abenduaren 13koa, erkidegoko esparrua ezartzen duena izenpe elektronikorako.
- Irailaren 17ko 14/1999 errege lege-dekretua, izenpe elektronikoiari, bere eraginkortasun juridikoa ezagutzeari, eta publikoari ziurtapen zerbitzuak emateari buruzkoa.
- 2000ko otsailaren 21eko agindua, ziurtapen zerbitzuak ematen dituztenen ziurtapen arautegia, eta izenpe elektronikoko produktu jakin batzuen ziurtapena onartzen duena.
- Abenduaren 59/2003 legea, izenpe elektronikoiari buruzkoa.


## Berme digitalak kudeatzeko prozesua Kontratazio Elektronikoen esparruan

Berme digitalaren bizi-zikloa eskaintza elektronikoen ondorengoa da:


- Elkarrekiko Bermeko Sozietateek edo Finantza-erakundeek bermea ematen dute:
  - Berme digitalaren dokumentua sortzea.
  - Berme digitalaren izenpe elektronikoa.
  - Berme digitala eskatu duen enpresara bidaltzea.
- Enpresak eskaintza, berme digitalaren karga eta eskaintza elektronikoa prestatzen ditu:
  - Eskaintzaren karga eskaintza elektronikoen aplikazioaren A, B eta C gutun-azalean.
  - Berme digitalaren karga eskaintza elektronikoen aplikazioaren B gutun-azalean.
  - Eskaintzaren eta berme digitalaren izenpe elektronikoa.
  - Eskaintza eta berme digitala eskaintza elektronikoen aplikazioaren bitartez bidaltzen da.
- Administrazioak Eskaintzen Irekitze Publikoa egiten du:
  - Eskaintza elektronikoen sistemaren zerbitzari zuzurra irekitzen da gutun-azal itxiak irekitzeko ordu ofiziala heltzean, eta kontratazio-mahaiko kideen gutxieneko kopurua dagoenean.
  - Enpresak A, B eta C gutun-azalean sartutako fitxategiak jaitsi eta deskodetzen hasten dira.
  - Eskaintza sinatu duen enpresako ordezkariaren ahalmena eta ordezkariaren izenpe elektronikoa egiaztatzen du.
  - Berme digitala irekitzen da.
  - Elkarrekiko Bermeko Sozietatearen edo berme digitala sortu duen Finantza-erakundeko ordezkariaren izenpe elektronikoa egiaztatzea.
  - Berme digitala balioztatzea




Bermea ematea




Eskaintza prestatzea




Gutun-azal itxiak irekitzeko ekitaldi publikoa




1



2



3



4

## Elkarrekiko Bermeko Sozietateek eta Finantza Erakundeek berme digitala ikusten dute:

Erantsitako irudietan berme digitala emateko urrats ezberdinak erakusten dira:

- Berme digitalaren dokumentua sortzea:





1. irudian, berme digitalaren dokumentua Adobe Acrobat softwarearen bidez sortu dela ikus daiteke (.pdf).

- Berme digitalaren izenpe elektronikoa:

• 2. irudian, IZENPE sinadura elektronikoen zerbitzuetarako sarbidea ikus daiteke, berme digitalaren izenpea egiteko.

- 3. irudian, izenpe elektronikoen prozedura ikus daiteke.
- 4. irudian: jatorrizko dokumentua (gorriz, "aval digital.pdf" fitxategian) eta era elektronikoa izenpetutako berme digitala (urdinez, "aval digital.pdf" fitxategia, PKCS #7 sinadurarekin) ikus daitezke.

Eredu erraz, erabilgarri eta segurua



Eskaintzaren prestaketa, berme digitalaren kargatzea, eta enpresak egindako eskaintza elektronikoa ikustea:

Erantsitako irudietan berme digitala eskaintza elektronikoko batean erabiltzeko eman beharreko urrats ezberdinak erakusten dira:


- 5. irudian: B gutun-azalak Behin-behineko

Bermea (Berme Telematikoa) duen fitxategia eransteko ontzia duela ikus daiteke.

- 6. irudian: Behin-behineko Bermea (Berme Telematikoa) B gutun-azalean sartzeko prozesua ikusten da. Gorde .zip dokumentu batean 2 izenpe fitxategiak (pdf eta p7s), dokumentu bakar batean erantsi ahal izateko.
- 7. irudian: eskaintza osoaren edukia ikus

daiteke, Behin-behineko Berme (Berme Telematikoa) B gutun-azalean sartuz, izenpetzeko eta Kontratazio Publiko Elektronikokoaren sistemaren zerbitzarietara bidaltzeko.

- 8. irudian: Eusko Jaurlaritzaren sarrera eta irteeren liburu telematikoa eskaintza jaso den izenpe ziurtagiria, B gutun-azalean Behin-behineko Bermea (Berme Telematikoa) barne hartuz.



## Administrazioak Eskaintzak Irekitzeko Ekitaldi Publikoa egiten du: Elkarrekiko Bermeko Sozietatearen, edo berme digitala sortu duen Finantza-erakundeko ordezkariaren izenpe elektronikoa egiaztatzea

Administrazioak egindako Eskaintzak Irekitzeko Ekitaldian zehar, kontratazio elektronikoen mahaiko idazkariak ondorengo eginkizunak egiten ditu:

- Gutun-azal itxiak irekitzeko ordu ofiziala heldu, eta kontratazio-mahaiko kideen gutxieneko kopurua lortu eta gero, eskaintza elektronikoaren sistemaren zerbitzari zuzurra irekitzea.
- Enpresak A, B eta C gutun-azaletan emandako fitxategiak deskargatu eta deskodetzea.
- Eskaintza izenpetu duen enpresako ordezkariaren ahalmena eta izenpe elektronikoa egiaztatzea.
- Elkarrekiko Bermeko Sozietatearen edo berme digitala sortu zuen Finantza-erakundearen ordezkariaren izenpe elektronikoa egiaztatzea. (9. irudia)
- Berme digitala balioztatzea.

